

D. UNIBERTSITATEKO EUSKARAZKO UDAKO IKASTAROETARAKO (UEU ETA EHU) DIRU-LAGUNTZAK

1.- DIRULAGUNTZA ESKATZEKO BALDINTZAK

- Ibarran erroldatuta egotea

2.- DIRULAGUNTZA JASOTZEKO BALDINTZAK

- a) Ibarran erroldatuta egotea.
- b) Unibertsitateko euskarazko udako ikastaroren batean parte hartzea.
- c) Ikastaroa euskaraz izatea.
- d) Ikastaroa bukatzea eta gutxienerako aprobetxamendua izatea.
- e) Diru-laguntzak jasotzeko inolako debekuren batean sartuta ez egotea. Debeku horiek azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan zehaztutakoak izango dira.
- f) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela egiaztatzen duen aitoren erantzulea aurkeztea.

3.- DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA

Ibarrako Udalak eskatzaile bakoitzari emango dion diru-laguntza gehienez matrikularen %75a izango da

.

4.- AURKEZTU BEHAR DIREN AGIRIAK

- a) Eskatera orria, behar bezala beteta.
- b) Nortasun Agiri Nazionalaren kopia.
- c) Matrikularen kopia.
- d) Unibertsitateak egindako ziurtagiria. Bertan honako gorabehera hauek zehaztu beharko dira: Eskatzaileak ikastaroa bukatu eta gutxienerako aprobetxamendua izan duen ala ez, eta asistentzia zenbatekoa izan den (ehunekotan).
- e) Bestelako administrazioei eta erakunde publiko edo pribatuei egindako diru-laguntza eskaeren zein jadanik emandako diru-laguntzen gaineko aitortpena.
- f) Eskatzaileak duen bankuko kontuaren titularitatea egiaztatuko duen agiria.